

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

2572

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Ederfil Becker Koop. E. enpresak aurkeztu duen proiektu teknikoa, kobrezko eta aluminio esmaltatzeko haria ekoizteko jarduerarako, Alegian.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen integratuaren araubidea aplikatu beharra ezartzen du I.A eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen duten titulartasun publiko eta pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzen badira.

Industriako Isurpenen eta 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duen Erreklamenduko 14.artikuluak, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren bidez onartua, irizpideak ezartzen ditu aldaketa bat funtsezkoa den ebazteko.

Bestalde, aipatutako Erreklamenduaren 15.5 artikuluan xedatzen denez, eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa osatu ondoren jendaurreko informazioaldia hasi behar da, gutxienez 20 egunekoa.

Azaldutakoa dela eta, egokitzen jotzen da AAI00276_MS_2025_001 espediente hageita hamar egun baliodunez jendaurrean egotea, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, egokitzen jotzen diren alegazioak eta oharak aurkez daitezzen.

Jendaurreko informazioaldiaren izapidean jarriko den instalazio-espediente Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) argitaratuko da, jendeak eskura izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 28a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.